

ZEIN IZAN BEHAR DA NATURAREKIKO HARREMANA?

Asko dira natur baliabideen inguruan munduan dauden auzi, liskar eta eztabaidak. Egia esan, ez dago adostasunik naturarekiko izan beharreko harremanen inguruan. Basoak eta lurrak modu pribatuan ustiatu behar dira edo modu publikoan? Nork du petrolioaz, gasaz edo meategiez baliatzeko eskubidea? Zein da natur ondasunak ustiatzeko modurik eraginkorrena? Munduan zehar modu askotara erantzuten zaie galdera hauei; hobe esanda, natur ondasunen erabilerari eta kudeatzeko moduari buruzko politika, iritzi edota filosofia desberdinak daude, eta horrek naturarekiko harreman desberdinak sortzen ditu.

1. Liberal-utilitaristak naturarekiko harremana desmitifikatzen

Mendeetan natura kontrola ezina zela pentsatu izan da. Natura gizaki magiko, mitiko edota sakratuen nahieren menpe zegoen. Dena dela, XVIII. mendean, Europako hainbat pentsalari naturaren indarra desmitifikatzen hasi ziren. Natura kontrolatu zitekeela eta gizakiaren mende eta bere zerbitzura egon behar duela zioten. Guy Rocher-ek XVIII. mendean gertatu zen aldaketa honi buruz dioen bezala: "...el entorno físico no debe concebirse ya como una fuerza a la que es preciso someterse o con la que conviene vivir en armonía, sino como una

fuerza que el hombre puede controlar y dirigir. El entorno físico puede ser controlado, a condición de que sea previamente desmitificado, es decir, a condición de que no se le atribuya ya el carácter de una voluntad arbitraria (interna o externa a él), sino que se le reconozca simplemente un determinismo susceptible de ser explotado por el hombre, si conoce sus leyes” (Rocher, 1985:585).

Naturarekiko gizarte filosofia berri honi lotuta, liberal-utilitaristak norbere interesean eta lehia askean oinarritutako sistema ekonomikoaren ontasunak azpimarratzen hasi ziren. Adam Smith (1723-1790), Jeremy Bentham (1748-1832) edo John Stuart Mill (1806-1873) bezalako pentsalarien ustez, *homo oeconomicus*-ak portaera guztiz arrazionala du, eta, bere interesak defendatuz, gizarte osoaren interesak defendatzen ditu. Are gehiago, lehia askeak ziurtatzen du interes indibidualen eta interes orokorren arteko lotura.

Liberal-utilitaristen ustez, natur ondasunak garapenaren, hazkunde ekonomikoaren edota aurrerapenaren zerbitzuan egon behar dira. Beraz, ezin du inork hauen ustiaketa mugatu edo oztopatu, ezta gobernuek ere. Natur ondasunen erabilera eta kudeaketa merkatu librean eta konpetentzia askeak erabaki behar dituzte, eta erakunde publikoek natur ondasunen ustiaketa behar bezala egiteko erraztasunak eman behar dituzte. Gizarteak eta ekonomiek natur ondasunak behar dituzte garatzeko, eta, beraz, hauen ustiaketari ezin zaio inolako mugarik jarri.

XIX. mendeko iraultza industrialaren ideia liberaletan eta naturarekiko harreman berri horretan oinarriturik egin zen, nagusiki; hau da, Leon Walras-en (1874-1877) *laissez faire, laissez passer, le monde va de lui même* legeari jarraituz. Honela, onartu egin zen giza jarduera guztiak merkatuak zuzentzea giza-kientzat zein gizarteentzat aberastasun eta ongizate iturri dela. Ondorioz, hazkunde ekonomiko eta industrialaren kapitalaren eta energiaren erabilera intentsiboan oinarritu zen, natur ondasunak amaigabeak balira bezala hartzen ziren, eta naturari egiten

zitzaizkion kalteak ez ziren kontuan hartzen (Esparta, 2004:13). Ikuspuntu honen baitan ez zuten tokirik natura arduraz ustiatzeko planteamenduek, ezta hurrengo belaunaldien ongizateak edo beharrianek ere.

Naturarekiko harreman liberal-utilitarista hau XVIII. mendean sortu zen, indarra hartu zuen XIX. mendean, eta ez zen zalantzan jarri XX. mendearen bigarren erdira arte.

2. Lurra espaziontzi bat da

1966. urtean, Kenneth E. Boulding-ek gerora eragin handia izango zuen ideia hau adierazi zuen: lurra espaziontzi bat bezalakoa da, eta espaziontzi honek baliabide mugatuak ditu; beraz, gizateriaren etorkizuna ziurtatzeko, ezinbestekoa da baliabide hauek modu arrazionalen eta zuhertasunez erabiltzea. Bizi garen espaziontzia hondatzen badugu, hurrengo belaunaldiak bizitokirik gabe geldituko dira.

Garapen industrialari eta hazkunde ekonomikoari bakarrik garrantzia ematen zitzaion testuinguru hartan, Boulding-en gogoeta honek oihartzun handia lortu zuen; hain zuzen ere, ondasunekiko beste harreman mota bat aldarrikatzen zuelako; beste berba batzuekin esanda, planteamendu liberal-utilitaristak zalantzan jartzen zituelako, eta lurrarekiko eta datozen belaunaldien etorkizunarekiko gizakiok dugun erantzukizunaren garrantzia azpimarratzen zuelako.

Mundua mugatua delako ideia hedatzen joan zen heinean, hazkunde esponenzialaren teorietan oinarritzen zen filosofia ekonomikoari (Hudson Institutuko eskolaren ikuspuntua, adibidez), hazkunde ekonomikorik gabeko egoera (Zero hazkunde) aldarrikatzen zuen filosofia kontrajartzen hasi zitzaion.

3. Erromako kluba

Naturarekiko eta munduari buruzko ikuspuntu berri honetan eragin handia izan zuen Erromako Klubak. Hain zuzen

ere, 1968. urtean, Erroman, 30 herrialdeetako 35 irakasle, zientzialari, ikerlari eta politikari elkartu ziren, ingurugiroa jasaten ari zen kalteei buruz hitz egiteko, eta egoera larri hortaz mundua ohartarazteko. Geroztik, Erromako Klubaren helburua izan da ingurugiroak jasaten dituen kalteei buruz ahal den oihartzun handiena lortzea eta estatuen eta pertsonen ohiturak eta pentsamoldeak aldatzea. Denis L. Meadows-ek (*Halte a la croissance*, 1972) idatzi zuen talde honen lehen txostena. Meadows-ek bost aldagairen arteko harremanak aztertu zituen (biztanleria, nekazal ekoizpena, natur baliabideak, ekoizpen industrialak eta kutsadura), eta zera ondorioztatu zuen: baliabide naturalak agortzearen ondorioz, mundua kolapsatuta geldituko da mende bat baino lehenago.

Egoera hau saihesteko, 1975. urtetik aurrera martxan jarri behar ziren neurri batzuk proposatu zituzten. Besteak beste, ekoizpen industrialak murriztea, osasun eta hezkuntza zerbitzuak hobegotzea, hondakinak birziklatzeko politikak bultzatzea eta oinarritzko elikagaien ekoizpena hobegotzea eskatzen zuten.

Nahiz eta Erromako Klubeko lan eta proposamenek kritika ugari jaso zituzten¹, Zero Hazkundera aldarrikatzen zuten teoriak garrantzi handia hartu zuten 70. hamarkadaren erdi aldean, eta natur ondasunak mugatuak zirelako argudioa indartu egin zen. Ondorioz, ugaritu egin ziren naturarekiko harreman liberalak zalantzan jartzen zuten ikerlari eta pentsalariak, baita naturarekiko beste harreman mota bat aldarrikatzen zutenak ere. Hau da, 70. hamarkadaren bigarren erditik aurrera, naturarekiko harremanei buruzko ikuspuntuak aldatzen hasi ziren, eta, horrekin, kontzientzia ekologista hedatzen (Guenaga, 2002:109).

¹ Kritiken artean, aipagarria da Sussex-eko unibertsitateko taldeak (H. S. D. Cole, C. Freeman, M. Jahora eta K. L. R. Pavitt) Erromako Klubeko lehen txostenari 1974. urtean (Meadows-ek egin zuena, 1973) egin ziona. Hauen ustez, Erromako Klubeko txostenek natur ondasunei eta, oro har, gizateria-
ren etorkizunari buruzko ikuspegi alarmista eta determinista ematen dute.

4. Neoliberalismoa naturarekiko harremanetan

70. hamarkadatik aurrera, naturarekiko harreman mota berri bat aldarrikatzen dutenen ikuspuntua hedatzen eta indartzen joan da. Dena dela, oraindik ere asko dira esaten dutenak Erromako Klubak, talde ekologistek eta, oro har, naturarekiko beste harreman mota bat aldarrikatzen dutenek ikuspuntu ezkorregia dutela, eta, oraingo hazkunde ekonomikoarekin jarraituta ere, munduak baduela natur ondasunak berriztatzeko gaitasuna. Teknologia berriei esker, natur baliabideen erabilpen hobeagoa egin ahal izango da, eta, ondorioz, gizateriaren etorkizuna zalantzan jarriko ez duen garapen mota ahalbidetuko.

Amerikako Estatu Batuetako (AEB) azken urteetako gobernuak dira ikuspuntu honen adierazlerik garrantzitsuenetarikoa. G. Bush-ek, oraingo AEBetako presidentearen aitak, ez zituen Bioaniztasunaren eta Klimaren konbentzioak sinatu, hain zuzen ere, bere ustez, iparramerikarren garapen ekonomikoa eta, beraz, “american way of life” kaltetuta gelditzen zirelako. Pentsatzekoa da bere semeak ere arrazoi berdinegatik uko egin ziola Kiotoko Protokoloa (1998) sinatzeari (Barcena, 2003:17). Bush aita-semeek babesten duten ideologia neoliberalaren iritzian, hazkunde ekonomiko etengabea eta iraungarria mundu mailan nagusitzen den neurrian gainditu ahal izango dira gaur egungo egoera sozio-ekonomiko latzenak, baita naturari egiten zaizkion kalteak ere.

5. Ondasunekiko harremanak Euskal Herrian

Gaur egun, naturarekiko harremanak ulertzeko modu nagusi bi agertzen dira: naturaren gehiegizko erabilerak atzera bueltarik gabeko kalte eta arriskuak sortzen dituela dioen teoria (Zero hazkundearen Teoria), eta, bestetik, Zero Hazkundearen teoria ezkorregia dela eta naturak berriztatzeko eta baliabideak etengabe sortzeko gaitasun izugarria duela (hazkunde esponenzialaren teoriak).

Ondasunekiko harremanak ulertzeko eta antolatzeko bi modu hauen arteko gatazka gure artean ere ematen da. Euskal Herrian ere naturarekiko harremanak ulertzeko modu desberdinak agertzen dira.

Alde batetik, aipatzekoa da lurraren inguruan sortzen diren eztabaidak. Ipar Euskal Herrian, adibidez, laborariak kexu dira nekazaritzarako egokiak diren lurak galtzen ari direlako, hain zuzen ere, lurra etxeak eraikitzeke erabiltzen delako. Laborarien sindikatuek salatu dutenez, turismoak eta oporretarako bigarren etxebizitza bat nahi dutenek bultzatzen duten espekulazioaren ondorioz, laborantzarako egokiak diren lurak oso garesti jartzen dira salgai, eta lurak behar dituzten gazteek ezin dituzte eskuratu. Are gehiago, zenbaiten ustez, lurrarekiko jarrera honek zonalde honetako euskal identitatea eta kultura desagerrarazten ari da. Andde Darraidou-k, Ezpeletako auzapezak, *Berria* egunkarian zioen bezala: “Etxebizitza nagusiak dira %80, %10 bigarren etxebizitzak eta %6 inguru daude hutsik. Baina jende ugari jitea espero dugu, 2.000 metro koadroko etxea erosteko ametsarekin. Lur hori laborantzari kenduko zaio deus egiten ez bada. Etxearen mitoari bukaera eman behar zaio, eta etxebizitza kolektiboa bultzatu. Laborantzak 200 lanpostu galdu ditu sei urtean. Lurraren erabilera erabaki politikoa da. Lur gutxiago ustiatu behar da eta alokairua edo epe batez saldu ezin den jabetza bultzatu. Bestela, euskal kultura bera ere arriskuan egongo da. Biztanleriaren hazkuntza kontrolatu behar da; bertzenaz, zer izanen da gure kultura? Arrotzak gure herrian?”.

Ipar Euskal Herrian ez ezik, Hego Euskal Herrian ere eztabaidagai garrantzitsua da lurra.

2006ko ekainean Eusko Jaurlaritzak Lurzoruaren Legea onartu zuen². Ikuspuntu kontrajarriak eta eztabaida bizia sortu zituen lege egitasmo honek.

² 2004ko irailean, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak Lurzoruaren Lege Egitasmoa onartu zuen, gero legebiltzarrak atzera bota zuen 2005eko Martxoan, eta azkenik 2006ko ekainean onartua izan zen.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailburu den Javier Madrazoren esanetan, Lurzoruaren Legeak lehentasuna ematen dio etxebizitza izateko eskubideari, lursailen propietatea edukitzeko eskubidearen gainetik. Honela, udalek lurzoruak urbanizatzeko prozesuak abiatu ahal izango dituzte hirigintza agenteen bitartez, luraren propietarioak berak urtebetean abian jartzen ez badu. Bestalde, legeak gehienez eraiki daitekeenari buruzko indizeak ezartzen ditu, garapen iraunkorraren aldeko ekimen bezala. Testuak debekatu egiten du txaleten urbanizazioak eraikitzea 3.000 biztanletik gorako guneean, zabalkunde-eremuan.

Batzuentzat, lurzoruaren lege honek administrazio publiko-entzat berreskuratzen du hirigintza garapenaren kontrola, lursailen jabetza esku pribatutik atereaz. Are gehiago, Legeak planteatzen dituen desjabetzeko formulek espekulazioa gelditzea ahalbidetuko dute.

Ikuspuntu honen aurka enpresaburuen elkarteak agertu ziren. Garai hartan Arabako Enpresaburuen Elkarteko (SEA) Idazkari Nagusi zen Jose Manuel Fartok zera esan zuen Radio Vitorian eman zuen elkarrizketa batean: “Eusko Jaurlaritzaren Lurzoruaren lege proiektuaren metodologia juridikoa espoliazioetik gertu dago”.

Hauek ez dira luraren inguruan Euskal Herrian ditugun arazo bakarrak. Larran (Nafarroa) egin nahi den eski estazioaren inguruan ere natur ondasunak antolatzeke modu bi agertzen dira. Erronkariko Ibarreko Batzarra 90eko hamarkadaren amaieran hasi zen bultzatzen Larran eski estazioa egiteko proiektua. Geroztik, Larrako auziak zer esan asko eta ikuspuntu kontrajarri ugari sortu ditu.

Alde batetik, Larrako eski estazioaren aldekoak daude. Nafarroako Gobernuaren eta Erronkariko Batzarraren arabera, eski estazioak bilararen sustapen ekonomikoa ahalbidetuko du. Horrela, Nafarroako Parlamentuak 60 hektareako eremua utzi du Larrako Natur gunetik at, eski estazioa egin ahal izateko.

Are gehiago, eski estazioaren aldekoek diote Larra eremu pribatua dela, eta Batzarrari dagokiola kudeatzea; beste hitz batzuekin esanda, Erronkariko Batzarrak eski estazioaren aldeko iritzia agertu du eta hori da balio duen iritzi bakarra.

Eski estazioaren kontra sortutako Larra-Belagua taldeak, berriaz, European aurkeztu du proiektuaren kontrako salaketa, eta Europak aintzat hartu du. Hauen ustetan, eski estazioak kalte handia egingo dio Larrako Natur guneari. Gainera, hauen ustez, Nafarroako Gobernuari dagokio Larrako Natur gunearen kudeaketa, eta ez Batzarrari. Beraz, Batzarrak ez du, gai hone-tan, azken hitzik. Nafar guztiei dagokien erabakia da, Nafarro-ako Gobernuak hartu beharrekoa.

Batzuen ustez, Mendialdeko herritarren eta hiriko ekologis-ten borroka da Larrako eski estazioaren inguruko aferra. Nire ustez, natur ondasunekiko harremanak antolatzeko modu des-berdin biren arteko borroka da.

6. Azken gogoeta

Nolako harremana izan behar dugu natur ondasunekin? Nork erabaki behar du lur, baso edo uren erabilerari buruz? Nork du hauek kudeatzeko, erabiltzeko eta ustiatzeko eskubi-dea? Galdera hauek ez dute erantzun errazik.

1987. urtean, Ingurumenaren eta Garapenaren Munduko Ba-tzordeak (WCED) egin zuen Brundtland Txostenak garapen iraunkorrari buruz hitz egiten zuen. Hainbat arazo eta konpon-bide aurkeztzen ziren, baina oraindik pauso gutxi eman dira kontzeptu horren atzetik dagoena egi bihurtzeko. Txosten ho-rretan, ondasunekiko beste harreman mota baten beharra plan-teatzen zen; alegia, natur baliabideak ez agortzeko, datozen be-launaldiekiko konpromisoa beharrezkoa dela onartzen zen.

1992. urtean, Nazio Batuen Erakundeak bultzatuta, Anizta-sun Biologikoari buruzko hitzarmena sinatu zen Rio de Janei-ron. Hitzarmen horretan ere garapen iraunkorrari buruz hitz

egiten zen, eta naturarekiko harmonian bizitzearen garrantzia azpimarratzen.

1998. urtean, Kioton sinatu zen protokoloan ere, naturarekiko harremana aldatzeko proposamena egiten zen. Zehatzago esateko, atmosferara isurtzen den karbono dioxidoa (CO₂) murrizteko zenbait erabaki hartu ziren.

Azken urteotan, protokolo, bilera eta foro ugari antolatu dira natur ondasunekiko harreman mota berriei buruz eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko, baina oraindik egoera argitu gabe dago. Nahi ditugun natur ondasunekiko harremanak zehaztu gabe dauzkagu oinarrian, eta hori arazo larria izan daiteke epe ertainean.

7. Erabilitako bibliografia

- Barcena, I. (2003): “Sarrera gisa: Globalizazioa eta ingurumena, Euskal Herritik begiratuak”. Barcena Hinojal, (Koord.): *Globalizazio eta ingurumena. Euskal begirada bat*. UEU, Donostia.
- Esparta, I. (2004): “Ekonomia soziala eta zientzia ekonomikoa: paradigma berri baten beharrezana”. Mendizabal, A. eta Errasti, A.M.: *Ekonomia sozialaren erronkak kapitalismo globalean*, UEU, Donostia.
- Guenaga, G. (2002): “Ingurumena eta lurraldearen antolaketa”. Jubeto, M. eta Zurbano M. (Koord.): *Euskal Herriko Ekonomia*. UEU, Donostia.
- Rocher, G. (1985): *Introducción a la sociología general*. Herder, Barcelona.
- Walras, L. (1987): *Elementos de economía política pura o teoría de la riqueza social*. Alianza, Madril.

Patxi Juaristi